



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

**EBAZPENA, 2018KO UZTAILAREN 9KOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ZEHAZTEN BAITA DONOSTIALDEKO LURRALDE
PLAN PARTZIALAREN PAISAIA-ZEHAZTAPENEI DAGOKIEN ALDAKETAREN
INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA.**

AURREKARIAK

2018ko apirilaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak Donostialdeko lurralde-plan partzialaren paisaia-zehaztapenei dagokien aldaketaren (aurrerantzean, «aldaketa») ingurumen-azterketa ebaluazioaren irismen-dokumentua emateko eskatu zuen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean (otsailaren 27ko 3/1998) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 21/2013) araututako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren esparruan.

Jasotako eskaera bideratzeko, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak aldaketaren zirriborroari eta hasierako dokumentu estrategikoari buruzko kontsulta egin zien eragindako administrazio publikoei eta interesdunei abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19.1 artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) 9. artikuluan xedatutakoa betez. Zehazki, honako organismo hauei egin zitzaizen kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Landaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Andoaingo Udala.
- Astigarragako Udala.
- Donostiako Udala.
- Hernaniko Udala.



- Hondarribiko Udala.
- Irungo Udala.
- Lasarte-Oriako Udala.
- Lezoko Udala.
- Oiartzungo Udala.
- Pasaiko Udala.
- Urnietako Udala.
- Usurbilgo Udala.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- URA-Uraren Euskal Agentzia
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan.
- Parkeen Lagunak «Haritzalde» elkarte naturalista.
- Landarlan Ingurumen Elkarte.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.

Aldaketaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa kontsultatutako erakundeen eskura jarri ziren bai Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren egoitzan bai Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailaren webgunean.

Ebazpen hau eman den egunera arte, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren eta Irun eta Errenteriako Udalen erantzunak jaso dira, eta horien emaitzak espedientean jaso dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasagarri bat sustatzea helburu dela.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren (otsailaren 27ko 3/1998) 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) 6.1.a artikuluan ezarritakoari jarraituz, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek erabakitako, onetsitako edo aldatutako plan eta programei, legeko xedapen batek



eskatuz gero plan edo programa hori egitea eta onestea, baldin eta legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta gai jakin batzuei buruzkoak badira. Eta gai horietako bat lurralde-antolamendua da, hain zuzen ere.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Donostialdeko lurralde plan partzialaren paisaia-zehaztapenei dagokien aldaketa (aurrerantz, «aldaketa»).

Lehen aipatutako abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezartzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko, aldez aurreko izapide hau egin behar da: ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1. artikuluan zehazten du zer dokumentu erantsi behar zaizkion tramitea hasteko eskaerari. 21/2013 Legeari aurka egiten ez dion guztian, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren) 8. artikulua hasierako dokumentuarekin batera eman behar den informazioaren zerrenda zabaltzen eta osatzen du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 10eko 211/2012 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ingurumen-organoak, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ondoren, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta organo sustatzaileari helaraziko dio jasotako erantzunekin batera.

Eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko epea amaitu ondoren eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, egiaztatu da ingurumen-erakundeak behar beste judizio-elementu dituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko.

Azkenik, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztearren, honako arau- eta erregelamendu-iturri hauek eta orokorrean onartzekoak diren iturri hauek hartu dira kontuan:

- 3/1998 Legea Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren EAEko Estrategia.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).



- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

Era berean, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruz jasotako eskakizunak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan erreferentziako dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasun txostenaren edukiari buruz hurrenez hurren jasotakoak ere.

Organo honek ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko eskumena dauka, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den Dekretuak (apirilaren 11ko 77/2017) xedatutakoaren arabera.

Hauek guztiak aztertu dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko Legea 40/2015, eta aplikagarria den gainerako araudia. Horiek horrela, bada,

EBAZTEN DUT

Lehen. Donostialdeko lurralde plan partzialaren paisaia-zehaztapenei dagokien aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, jarraian zehaztutako terminoetan:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko Dekretuak (ekainaren 3ko 90/2014) hainbat tresna ezartzen ditu paisaia lurralde-antolamenduaren berariazko dimentsio gisa kudeatzeko eta garatzeko, Paisaiaren Hitzarmen Europarrak (Europako Kontseiluak onartu zuen 2000. urtean) aldarrikatzen duenarekin bat etorritik. Eusko Jaurlaritza 2009an atxiki zitzaion aipaturiko hitzarmen horri.

Donostia Bidakoa Behereko eremu funtzionaleko LPPa uztailaren 27ko 121/2016 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. Paisaiarekin loturiko hainbat gomendio jasotzen ditu, nagusiki inguru fisikoaren antolamendu-esparrukoak. Orain, aldaketa horren bidez, Paisaiaren Hitzarmen Europarraren funtsa LPPeant sartu da, paisaiaren berariazko dimentsioa sartzeko.



Hartara, populazioak jasotzen dituen eremu guztiak hartzen dira kontuan, natura-inguruetatik hasi, eta hiri-inguruetara. Paisaiak garrantzi berezia hartzen du kultura-ondarearen parte gisa, eta paisaiaren kontserbazioak lagundu egiten du inguruko bizi-kalitatea hobetzen.

Zehazki, ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek aplikatuko dira aldaketa egiteko:

1. Etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo premiak betetzeko garapen jasangarria bermatzea.

- Lurzoruaren okupazioa geldiaraztea, artifizialdutako lurzoruen erabilera lehenetsiz eta espazio degradatuak berroneratzea eta berreraikitzea bultzatuz.
- Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruen erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- Ingurumeneko eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz.
- Landa-eremuaren jasangarritasuna bermatzea nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.
- Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruak arduraz erabiltzen direla sustatzea.

2. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

- Biodibertsitatea babestearen alde lan egitea, horretarako biodibertsitatearen osagaiak modu jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumenaren baliabideen erabileratik ateratako etekinetan parte-hartze justua eta bidezkoa lortzeko.
- Habitaten eta populazio biologikoen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, lurralde erresiliente eta multifuntzional baterantz aurrera egiteko.
- Ondare geologikoaren kontserbazioa eta balorizazioa indartzea ondare hori udal- eta sektore-plangintzaren tresnetan eta ingurumena prebenitzeko prozeduretan txertatuta.
- Eremu funtzionaleko paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.

3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

- Klima-aldaketarekiko erresilientea, trinkoa eta erabilera mistokoa den hiri-egitura bultzatzea.
- Berdeguneak eta espazio libreak sustatzea a klima-kontrola errazteko eta inguru atmosferikoa hobetzeko, zuhaiztiak sustatuz.

4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.



- Arrisku naturalak dituzten zoruen urbanizazioa geldiaraztea (uholdeak, akuiferoen ahultasuna, erosioa).
- Azaleko (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko eta urei dagokienez eremu babestuetako (bainatzeko tokiak, hartuneak, nitratoekiko eremu zaurgarriak) ur-masen egoera ona lortzea.
- Airearen kalitatea ziurtatzea (kanpoan eta barnean, zarata barne) Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat eta zarata handiekiko esposizioa duen biztanleria murrizten dela bermatzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jardura indartuz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du aldaketak nola ezartzen dituen aurrez azaldutako ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen jardura eta azpiegiturek ingurumenari dakarzkieten ondorio negatiboak gutxitzen.

B. Geografia-eremua eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Aldaketaren jardura-esparruak bat egiten du Donostia Bidasoa Behereko eremu funtzionalarekin. Gipuzkoako ipar-ekialdean dago kokatuta. Iparraldean muga egiten du Kantauri itsasoarekin, ekialdean Frantziarekin, hego-ekialdean Nafarroako Foru Komunitatearekin eta ipar-mendebaldean Tolosaldeko eremu funtzionalarekin. Azkenik, Urola Kostako kostaldearekin egiten du muga mendebaldean.

376 km²-ko azalera du, eta udalerrri hauek biltzen ditu: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

Donostia Bidasoa Behereko eremu funtzionalean bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abenduaren 13ko 42/2007) aplikatuzetik eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat duten guneak daude. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legedia da. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen Legegintzako Dekretuak (apirilaren 15eko 1/2014) oinarritzko legediak babestutako naturaguneen sarean sartzen ditu biotopo babestuak eta aparteko zuhaitzak. Halaber, kategoria honetan kontuan hartu behar dira Uren Legearen testuategia onesten duen Legegintzako Errege Dekretuan (uztailaren 20ko 1/2001) araututako ibai-erreserba naturalak.

Kategoria horretan honako gune eta elementu hauek daude:

- Parke naturalak: Aiako Harria.



- Biotopo babestuenak: Leitzaran ibaia.
- Aparteko zuhaitzak: Berioko artea, Igarako haritza eta Hernaniko gingkoa.
- Natura 2000 Sarea:

- Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE):

- Oriako itsasadarra / Ria del Oria
- Leitzaran ibaia / Rio Leitzaran
- Uria
- Urumea ibaia / Rio Urumea
- Aiako Harria
- Jaizkibel
- Txingudi-Bidasoa

- ✓ Hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE): Txingudi-Bidasoa.

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko, gunek horiek fauna eta flora basatien espezieen korridore ekologikoekin eta migratzaileentzako, banaketa geografikotako eta elkartruke genetikoentzako oinarritzakoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaiak eta lurreko zein itsasoko elementuekin osatzen dira.

Aurrez aipatutakoez gain, ingurumen-balio nabarmenak dituzten eta katalogo eta inbentario hauetan jasotzen diren beste gunek batzuk daude:

- Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan jasotakoak.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako espazioak.
- EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren gunek.
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen arloko Planeko beste hezegune batzuk.
- EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen Kudeaketarako Baterako Planeko Interes Bereziko beste Gunek batzuk.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasuneko habitatak, Natura 2000 Saretik kanpo.
- Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gunek interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioa lehentasuneko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak –non goi-tentsioa duen linea elektrikoetan ez elektrokatatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira– argitaratzen dira.

Ingurumenaren aldetik garrantzizkoak dira ere balio agrologiko handiko lurzoruek eta EAEko plan hidrologikoetan finkatutako zona babestuen erregistroetako beste zona batzuk, goian zerrendatutako eremuetan ez daudenak.

Kultura-balio handia dutenen artean daude kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.



Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten eremuen artean, urak hartzeko 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten eremuak daude, baita 500 urteko errepikatze-denbora dutenak eta lehentasunezko Fluxuko Eremuak, eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten lurzoruak eta akuiferoak kutsa ditzaketen eremuak ere.

Aldaketa izapidetzeko, kontuan izan beharko dira aipatutako garrantzi desberdineko guneak, bai eta ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratortzen diren baldintzatzaileak ere.

C. Jardunak egiteko egokiak ez diren eremuak

Aldaketaren Hasierako Dokumentu Estrategikoak adierazten duen moduan, aldaketa aplikatuta lortu nahi diren paisaia-kalitatearen helburuek eremu funtzionaleko paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzen dituzte, balio ekologikoak eta ingurumenekoak bultzatuz. Era berean, gomendio mailako antolamendu-arauak ditu eta paisaiaren kalitate-helburu batzuk ezartzen ditu, lurraldeko sektore- eta hirigintza-plangintza inspiratzeko printzipio izan behar direnak.

Horren guztiaren ondorioz eta proposatutako jarduketan xehetasun maila kontuan izanik, dokumentuaren nolakotasuna eta proposamenen eskala eta garapen maila direla eta, esan daiteke, printzipioz, ez dela identifikatu etorkizuneko jarduketak onar ezin daitezkeen eremurik.

D. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Ulertzen dugu proposatutako jarduketan ondoriozko balizko inpaktuen identifikazioa dokumentuaren nolakotasunaren arabera dela, bai eta proposamenen eskala eta garapen mailaren arabera ere. Era berean, bat egiten dugu, oro har, hasierako dokumentu estrategikoak egiten duen lehen hurbilketarekin. Edonola ere, beharrezkotzat jotzen dugu ingurumen-azterketa estrategikoak argi eta garbi identifikatzea ondare naturalean eragina izan dezaketen jarduera zehatzak.

E. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia bildu beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak, aurrerantzean azterketak, hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa

Azterketak aldaketaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, baita beste plan eta programa lotuekin dituzten erlazioei buruzko analisi labur bat ere, betiere plan eta programa horiek sinergien sorkuntzan eragin badezakete eta ingurumenean ondorio kaltegarriak izan baditzakete.

Ingurumenean kontrako eragin garrantzitsuak izan ditzaketen aldaketaren ondoriozko gai berriei buruzko deskribapen xehatua garatuko da azterketan.

Azterketak era espezifikoan justifikatu beharko du Ebazpen honetako «Lehenengoa A» atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak kontuan izan direla aldaketa. Justifikazio hori bai arauetan bai aldaketan bertan ezarritako adierazle eta mugen erabileran oinarrituko da.

2. Ingurumenaren egungo egoera

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta aldaketa aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita Ebazpen honetako «Lehenengoa B» atalean «ingurumenaren aldetik nabarmen» gisa identifikatutako edozein gunerekin erlacionatutako arazoak ere.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneoen definizio bat gauzatuko da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, aldaketaren izaera orokorrarekiko proportzioa duen eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleak erabilita bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren¹ adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta Ebazpen honetako «Lehenengoa.A» atalean adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Azterketak aipatutako adierazleei buruzko datuak jaso beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi horien adierazgarri diren beste adierazle batzuei buruzkoak, eta kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko egon litezkeen zailtasunak justifikatu beharko ditu. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterketak; hala, ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuko da.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal horretan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina –bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia–, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskainitako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Aldaketatik eratorritako gai berriei dagozkien planeamendu-ekintzak identifikatuko dira. Bereziki, arreta berezia jarriko zaie jarduketei, baldin eta, azken buruan, hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurunearen eraldaketa nabarmenak ekar baditzakete.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko atalean identifikatutako ondorio garrantzitsu bakoitzerako horiek prebenitu, zuzendu edo, halakorik behar bada, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, garapen-tresna zehaztuko da eta, bertan, proposatutako neurrietako bakoitza ezarriko da.

¹ 2013ko Euskadiren ingurumen-profila, ingurumen-adierazle nagusiak.

http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/perfil_ambiental/es_def/adjuntos/2013.pdf

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

5. Alternatibak hautatzeko prozesua

Honako hau bilduko da: alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta aldaketaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen, batez ere ingurumen-helburuekikoak. Analisi horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Ebaluazio horren erreferentzia-esparrua plana gauzatu ezean (0 alternatiba) alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera izango da.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta LAGak aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira bertan. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, Ebazpen honetako «Lehenengoa E.2» atala betetzeko, baita kasu bakoitzean, datuak biltzeko erabiliko diren periodikotasuna eta metodoak ere.

7. Laburpen ez-teknikoa

Azterketak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu buruaskia eta azterketarekiko independentea izan dadin.

F. Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioak

Donostialdea-Bidasoa Behereko eremu funtzionaleko Natura 2000 Sarean sartuta dauden espazioak ebazpen honen «Lehenengoa B» atalean, hau da, ingurumenaren arlotik garrantzia duten eremuak deskribatzen dituen zerrendatutakoak dira.

Beren antolamendu- eta kudeaketa-plan propioak dituzten espazioak direnez, eta horiek paisaiari buruzko xedapenak dituztenez, ez lukete Paisaiaren Ekintza Plan bat beharko, baina komenigarria litzateke atal honetan argi eta garbi adieraztea egingo diren jarduketek espazio babestu horietan inolako eraginik ez dutelako ziurtasun osoa.

G. Jendaurreko informazioa eta kontsultak

Eragiten dien administrazio publiko eta interesdunentzako jendaurreko informaziorako eta kontsultarako epea gutxienez 45 egunekoa izango da. Gutxienez ebazpen honetan identifikatutako erakundeen iritzia jaso beharko du, hau da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako horiena.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

H. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 16. artikuluan dioenaren arabera, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterketaren egileak identifikatu egin behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

Dokumentazioa aurkezteko, honako jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoen atalak haien artean erlacionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala georreferentziatua, behar duten ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.



6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuetako atalen bat osatzeko edo zuzentzeko aurkezten bada, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu osatzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturtat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, atalak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak, eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, tramite gehigarri bat eska daiteke kontraesankorrak edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplika daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilita, zehazki, helbide honetan:
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/es/contenidos/informacion/guia_iks/es_def/index.shtml
10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 10 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. IKS-eem sistemak oraindik ez duenez .shp formatua onartzen, planoen joko bat aurkeztuko da formatu horretan, euskarri digitalean, eta hori ingurumen-erakundeari bidaliko zaio ohiko bideak erabiliz.
13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrenena. Ebazpen honen edukiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzari.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 9a.



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

Ivan Pedreira Lanchas

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental